


Kaiman Beltzeko piratek
ez dute neskarik nahi haien itsasotzian.

Zer gertatuko ote da Daniela iristen denean?



Daniela Pirataren beste abentura batzuk



DANIELA PIRATA
265.000
liburu baino
gehiago salduta



DANIELA PIRATA



Susanna Isern & Gómez



DANIELA PIRATA



SUSANNA ISERN
& GÓMEZ





Daniela Pirata
Egalité Bilduma

© testuarena: Susanna Isern, 2017

© irudiena: Gómez, 2017

© argitalpenarena: NubeOcho, 2017

© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2025

www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Oinarrizko ideia: Susanna Isern eta Luis Amavisca

Jatorrizko izenburuak: *Daniela Pirata*

Lehen argitaraldia: Otsaila, 2026

ISBN: 979-13-88132-34-6

Gordailu Legala: M-2781-2026

Portugalen inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta argitalpen honen erreprodukzioa..

Yuna-ri.

Susanna Isern

*Nire txikiari, emakume eta gizonezkoen
komunak bereizita egotea gorroto duenari.*

Gómez

DANIELA PIRATA



SUSANNA ISERN
& GÓMEZ



ITSASO OSO URRUN BATEAN

Kaiman Beltza itsas-gainean zebilen.

INOIZ IZAN DEN

itsasontzi pirata beldurgarriena zen.

ONIZI guztiek saihestu nahi izaten zuten

Kaiman Beltza haien ibilbidea antolatzeko garaian,

eta, noizbait, marinelen batek bere **KATALOXATIK**

begizatzen bazuen, bira egin eta ihes egiten zuen

aurkako norantzan.





KAIMAN BELTZ-EKO kapitainak **BELARRIMOTZ**

izena zuen. Hura eta bere pirata ankerrak gaiztakeria
gupidagabeengatik ziren ezagunak.

DANIELA ere itsaso urrun hartan zebilen,
ARAMU SALTARIA izeneko belaontzi txiki batean.

Kondaira izugarrienek kontatzen zutenari entzungor eginez,
ITSASONTZI BELDURGARRIA topatu nahi zuen.

Izan ere, bazen Danielak munduan beste ezer ez bezala
desio zuen zerbait:

KAIMAN BELTZEKO PIRATA
izan nahi zuen!



Halako batean, **BILA ETA BILA**
egun zein gau andana igaro ondoren,



itsasontzia **TOPATU ZUEN.**

—Nire izena Daniela da eta ontzi
honetako **PIRATA IZAN NAHI DUT!**



—**NESKA**, gure eskifaiaren parte izan nahi duzula
diozu? —galdetu zuen Belarrimotzek, zur eta lur.

—Hala da! —erantzun zuen Danielak irmo.

Piratak **BARRE-ALGARA** batean
lehertu ziren.



Kapitaina bere **GIZONEKIN** bildu zen.
Minutu batzuetako eztabaida baten ostean,
Belarrimotzek zera adierazi zuen:

—Kaiman Beltzeko
pirata izan nahi
baduzu, zenbait
PROBA gainditu
beharko dituzu.



—Zeintzuk? **EDOZER EGIN
DEZAKET!** —esan zuen Danielak,
zeharo konbentzituta.




—Pirata izateko **LEHEN PROBA**
arrainak eskukadaka arrantzatzea da.
BADAKIZU ARRANTZAN?

DANIELAK ITSASORA JAUZI
EGIN ZUEN ZUZENEAN.



Ontzira itzuli zenean, pirata
guztiak **ZUR ETA LUR**
geratu ziren.



—HEMENTXE DAKARTZAT
zenbait bakailu, kilo bat
otarrainxka, hiru txibia eta
manta-arrai erraldoi bat.

—Ez dago batere gaizki... —onartu zuen Belarrimotzek—.
BIGARREN PROBAN haritza bezain sendoa zarela
erakutsi beharko duzu. **SENDOKI AL ZARA?**